



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila : HIRIGINTZA

Espediente zk.: 09-3338

AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA EDIKTUA


AMOREBIETA-ETXANON BIZIKLETAK MAILEGUAN UZTEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUARI BURUZKO ESPEDIENTEA.

Amorebieta-Etxanon bizikletak maileguan uzteko zerbitzua arautzen duen Erregelamendua behin betiko onartu da. Udalbatzak 2010eko maiatzaren 27ko Ohiko Osoko Bilkuran hasiera batean onetsi ondoren, erabakia 2010eko ekainaren 8ko 107. zk.dun BAO n argitaratu zen. Beraz, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 art. an xedatutakoa betetzeko. Argitaratzen den egunean bertan sartuko da indarrean.

BIZIKLETAK MAILEGUAN UZTEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA

BIZIKLETAK MAILEGATZEKO ZERBITZUA ERABILTZEKO ARAUAK

1. Zer da eta nola funtzionatzen du?

 UDALERRIAN BIZIKLETAK MUGITZEKO ZERBITZU PUBLIKO GISA DAGO PENTSATUTA. ZERBITZU HORRETAN IZENA EMATEN DUTENEK KONPROMISOA HARTZEN DUTE GARRAIOBIDE HORI EGOKI ERABILTZEKO ETA HORREN FUNTZIONAMENDUA ETA ARAUAK ONARTZEN DITUZTE, HONAKO ARAUDIAREN ARABERA.

MAILEGU PUNTUAK

BIZIKLETAK MAILEGATZEKO ZERBITZUAK 5 PUNTU ESKAINTZEN DITU UDALERRIKO HAINBAT LEKUTAN:

- ZELAIETA PARKEA. ZELAIETA ZENTROAREN AURREAN.
- GANE POLIKIROLDEGIA.
- LARREA POLIKIROLDEGIA.
- LARREKO ESKOLA PUBLIKOAREN INGURUAN. LARREA AUZOA.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- TREN GELTOKIA. SABINO ARANA 28.
- OGENBARRENA AUZOA. OGENBARRENA PLAZA LANDETA KALEAREN IZKINAN.

 TELEFONOA: **900 840 345**

WEB ORRIA: WWW.BIZIPREST.COM/AMOREBIZIZ


E-MAILA: AMOREBIZIZ@BIZIPREST.COM

➤ **ORDUTEGIA:**

BIZIKLETAK ASTELEHENETIK IGANDERA ERABILI AHALKO DIRA, 05:30ETIK 00:00ERA; GEHIENEZ ERE, ORDU BI JARRAIAN. 23:30ETIK AURRERA EZ DA BIZIKLETARIK MAILEGATUKO, ETA BERANDUEN JOTA, 00:00EAN ITZULI BEHARKO DIRA; BERANDUAGO ITZULTZEN BADIRA, ZIGORRA EZARRIKO ZAIO ERABILTZAILEARI (IKUS ZIGOR-TAULA).

ORDUTEGI ALDAKETAK MODU EGOKIAN AZALDUKO DIRA MAILEGU PUNTU BAKOITZEAN DAUDEN PANEL INFORMATIKOETAN, ASTEBETE LEHENAGO (EMERGENTZIA KASUETAN IZAN EZIK).

BIZIKLETAK ARAU HAUETAN EZARRITAKO ORDU ETA LEKUETAN ERABILI AHALKO DIRA SOILIK. BIZIKLETA ORDU BI JARRAIAN ERABILIZ GERO, 15 MINUTU ITXARON BEHARKO DA BESTE MAILEGU BAT EGITEKO.

- **NORK EMAN DEZAKE IZENA?** EDONORK ERABIL DEZAKE . BALDINTZA BAKARRA 14 URTETIK GORAKOA IZATEA DA. ADINGABEKOEK (14 – 17 URTE BARNE) GURASOEK EDO LEGEZKO TUTOREAK SINATUTAKO BAIMEN-ORRIA BETE BEHARKO DUTE.

ERABILTZAILEAK MODU BAT BAINO GEHIAGO DU **ZERBITZUAN IZENA EMATEKO**. WEB ORRIAREN BIDEZ EGIN DAITEKE, TELEFONOZ, EDO IRAILAREN 1ETIK 30ERA ZELAIETA ZENTROAN EGINGO DEN IZENA EMATEKO KANPAINAN. ORDUTEGIA: 10:00 – 14:00 ETA 17:00 – 20:00.

2009AN ZERBITZUA DOAKOA IZANGO DA. 2010ETIK AURRERA, UDAL ORDENANTZA FISKALAREN ARABERA, URTEKO KUOTA BAT EZARRIKO ZAIE ERABILTZAILEEI, ETA ZERBITZUA NOIZEAN BEHIN ERABILI NAHI DUTENEI EGUNEKO KUOTAK. UDALERRIAK EZARRIKO DITU PREZIOAK ETA DAGOKION UNEAN EMANGO DA HORIEN BERRI.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

HORRETARAKO, ERABILTZAILEAK, IZENA EMATERAKOAN BANKUKO DATUAK EMAN BEHARKO DITU, UDALETXEKO EKONOMI ZERBITZUEN BITARTEZ URTEKO ORDENANTZA FISKALAK ADIERAZITAKOA BETEARAZI AHAL IZATEKO. 2009AREN BARRUAN, IRAILETIK ABENDURA BITARTEAN IZENA EMANGO DUTEN ERABILTZEAK 2010. URTEKO ORDENANTZA FISKALAK ARAUTUTAKO APLIKATUKO ZAIE, ZERBITZUAN ESPRESUKI BAJAN EMATEN EZ DIREN BITARTEAN.

TELEFONOA: 900 840 345

WEB ORRIA: WWW.BIZIPREST.COM/AMOREBIZIZ

E-MAILA: AMOREBIZIZ@BIZIPREST.COM

UDAL BULEGOA: IRAILAREN 1ETIK 30ERA ZELAIETA ZENTROAN. ORDUTEGIA:
10:00 - 14:00 ETA 17:00 – 20:00.

➤  **TXARTELA:**



 TXARTELA PERTSONALA ETA BESTERENEZINA DA.

GAILU ELEKTRONIKO BAT DAUKA ERABILTZAILEA ETA BERE MAILEGUAK, ZIGORRAK ETA ABAR IDENTIFIKATZEKO. NAHITAEZKOA DA TXARTELA EGOKI ERABILTZEIA ETA BEHAR BEZALA MANTENTZEIA, MAILEGU PUNTUAN BIZIKLETA HARTU NAHI BADA.

NOLA LORTU  TXARTELA? BIZIKLETAK MAILEGATZEKO ZERBITZUA ERABILTZEKO TXARTELA ETA DAGOKION PIN-A BIDE HAUETATIK LORTU DAITEZKE:

- BIZIPRESTEN 900 840 345 TELEFONORA DEITUTA EDO WEB ORRIAREN BIDEZ: WWW.BIZIPREST.COM/AMOREBIZIZ. POSTAZ HELDUKO ZAIZU TXARTELA 5-10 LANEGUNEKO EPEAN.
- IRAILAREN 1ETIK 30ERA ZELAIETA ZENTROAN. ORDUTEGIA: 10:00 - 14:00 ETA 17:00 – 20:00.

➤ OSO ERRAZA DA  **ERABILTZEIA**. EMAN BEHARREKO PAUSOAK:

1. ZERBITZUAN IZENA EMAN ETA  TXARTELA JASOKO DUZU.
2. UDALERRIKO EDOZEIN MAILEGU PUNTUTARA JOAN ETA BIZIKLETA BANKADAK ETA PANEL INFORMATIKOAK IKUSIKO DITUZU.
3. PASATU  TXARTELA ZUTABE INFORMATIKOAN SEINALATUTA DAGOEN IRAKURGAILUTIK.




Amorebieta-Etxanoko Udala

Bizkaia

4. PIN KODEA SARTZEKO ESKATUKO DIZU PANTAILAK.
5. PIN-A IDATZI ONDOREN, AUKERA ANITZEKO MENU NAGUSIRA SARTUKO ZARA. PANTAILA HORRETATIK HAINBAT ERAGIKETA EGIN AHAL DITUZU: PIN KODEA ALDATU, ZURE ERABILTZAILE EGOERA IKUSI (EGINDAKO MAILEGUAK, ZIGORRAK, DATU PERTSONALAK...) GERTAKIZUNAK ERREGISTRATU ETA BIZIKLETA HARTU.
6. MAILEGUA EGITEN DUZUNEAN, LEHENIK ETA BEHIN, ERABILERA BALDINTZAK ONARTU BEHAR DITUZU. ONDOREN, PANTAILA BAT AGERTUKO ZAIZU BANKADAN ERABILGARRI DAUDEN BIZIKLETA GUZTIEKIN.
7. AUKERATU BIZIKLETA BAT.
8. GILTZARRAPO ELEKTRIKOAK AUTOMATIKOKI ASKATUKO DU BIZIKLETA ETA MINUTU BAT IZANGO DUZU HARTZEKO. MINUTU HORRETAN BIZIKLETA HARTU EZ BADUZU, GILTZARRAPOA BERRIZ AKTIBATU ETA ITXI EGINGO DA; BERAZ, BIZIKLETA LOTUTA GERATUKO DA. BIZIKLETA ONDO EZ DABILELA IKUSTEN BADUZU, MINUTU HORRETAN ITZULI DEZAKEZU ETA SISTEMAK BESTE BIZIKLETA BAT HARTZEKO AUKERA EMANGO DIZU. MINUTU HORI PASATU ETA GERO, SISTEMAK BALIOZKOTZAT JOKO DU MAILEGUA ETA EZ DIZU BESTE BIZIKLETARIK HARTZEN UTZIKO 15 MINUTU PASATU ARTE.
9. BIZIKLETA EGOKI HARTU ETA GERO, EDONORA JOAN ZAITEZKE, UDALERRIKO MUGEN BARRUAN BETIERE. EZ AHAZTU EZIN DUZULA JARRAIAN **ORDU BI** BAINO GEHIAGOZ EDUKI BIZIKLETA. ORDENAGAILUAREN PANTAILAN IRAKURRIKO DUZU, ZIGORRIK JASO GABE ZEIN ORDUTAN ITZULI DEZAKEZUN BIZIKLETA BERANDUEN.
10. BIZIKLETA ITZULTZEKO, ZOAZ EDOZEIN MAILEGU PUNTUTARA ETA SARTU BIZIKLETA GILTZARRAPO AUTOMATIKOAN. **ITZULKETA ZUZEN EGIN BADUZU, BURRUNBA HOTS BAT ENTZUNGO DUZU.** HOTS HORI ENTZUTEN EZ BADUZU, BEGIRATU BIZIKLETA GILTZARRAPOAN ONDO SARTUTA UTZI DUZUN.

EDOZEIN PUNTU INFORMATIKOTAN JAKIN DAITEKE BESTE BANKADEN BERRI: ZENBAT BIZIKLETA DAUDEN LIBRE, ZENBAT GILTZARRAPO, AMOREBIETAKO UDALEKO WEB GUNEAREN LOTURA, ETA INTERNETEN IBILI ZAITEZKE 15 MINUTUTAN.

ZERBITZUA ERABILTZEKO TXARTEL BATERAGARRIAK:

 TXARTELAREKIN BATERAGARRIAK DIREN BESTELAKO TXARTEL ELEKTRONIKOAK ERE ERABIL DAITEZKE ZERBITZUAN ALTA EMATEKO.



Amorebieta-Etxanoko Udala

Bizkaia

OHIKO TXARTELAREN ORDEZ ERABILI BEHARREKOAK BETE BEHAR DUEN BALDINTZA MIFARE 1K-DUN KONTAKTU BAKO TXARTELA IZATEA DA EGUN DAGOENAREN BEZALAKOA. GAUR EGUN GURE ARTEAN DITUGUNAK DIRA HAUEK, BESTEAK BESTE: ONA, IZENPE EDO TA GARRAIORAKO TXARTEL BATERATUAK ESATERAKO.

IZENA EMATEKO EMAN BEHARREKO PAUSUAK:

1. *Morebiziz*-EN IZENA EMATEKO: ERABILTZAILERAK JADANIK BERAK DAUKAN TXARTELEN BAT (AURREAN AIPATURIKO EZAUGARRIDUN TXARTELA) ERABILI NAHI IZANGO BALU, ZELAIETA ZENTROAN, TXARTELA AURKEZTU BEHARKO DU TXARTELAREN KODEA IRAKUR DIEZAIOTEN.
2. BETI ERE IZEN EMATE ORRIA BETE BEHARKO LUKE ZERBITZUAN IZENA EMATEKO.
3. DATUAK, ZERBITZUAN IZENA EMATEKO ONARTURIK DAGOEN ARABERA JAKINARAZI AHAL IZANGO DIRA (DOAKO TELEFONOAREN BITARTEZ, WEB ORRIAREN BITARTEZ EDO TA POSTA BITARTEZ), ERABILIKO DUEN TXARTELAREN KODEA EMAN BEHARKO DU.
4. ZERBITZUAREN KUDEATZAILERAK DATU GUZTIAK ONDO DAUDELA ZIURTATZEAN, ERABILTZAILERAREN TXARTELA ALTAN EMANGO DA ZERBITZUAN.
5. MOMENTU HONETATIK AURRERA EDOZEIN ERABILTZAILERAK BEZALA ERABILIKO DU ZERBITZUA.

JADANIK ZERBITZUAN IZENA EMANDA DAUDEN ERABILTZAILERAK

1. JADANIK ZERBITZUAN IZENA EMANDA DAGOAN PERTSONA BATEK TXARTEL BATERAGARRIREN BAT ERABILI NAHIKO BALU, ERABAKI BEHARREKO ZELAIETA ZENTROAN, TXARTEL BATERAGARRIAREN KODEA EMANGO ZAIO ETA ZERBITZUAREN DOAKO TELEFONORA DEITUTA, ZERBITZUAN TXARTEL HORRI ALTA EMANGO ZAIO.
2. TXARTEL BATERAGARRIREN BATEN BIDEZ IZENA EMATEN DUEN ERABILTZAILERAK, TXARTEL HORI GEHIAGO EZ ERABILTZEA ERABAKIKO BALU, ZERBITZUAK OHIKO *Morebiziz* TXARTELA EMANGO DIO ZERBITZUA ERABILTZEN JARRAITZEKO AUKERA IZAN DEZAN.

Morebiziz **MAILEGU ZERBITZUAREN EGUN BAKARREEKO ERABILERA:**



Amorebieta-Etxanoko Udala

Bizkaia

INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BETEZ, BIZIKLETEN MAILEGU ZERBITZUA EGUN BAKAR BATEAN ERABILTZEKO PROPOSATU DA EGUN BAKARREKO ERABILERA.

EGUN BAKARREKO ERABILTZAILE MODUAN JARDUTEKO, ERABILTZAILEAK BANKUKO TXARTEL BAT BEHARKO DU ETA MAILEGU-PUNTUETAN KOKATURIKO ZUTABE INFORMATIKOAREN BITARTEZ EGIN AHALKO DA.

EGUN BAKARREKO ERABILERA EGITEKO PROZESUA:

1. ZERBITZUA EGUN BAKARREAN ERABILI NAHI DUEN PERTSONAK BERE DATUAK SARTUKO DITU MAILEGU PUNTUETAN KOKATURIKO ZUTABE INFORMATIKOETAN, HORRETARAKO ATONDUKO DEN FORMULARIOAREN BITARTEZ.
2. EGUNEKO LEHEN MAILEGUA ESKATZEAN EGINGO DA ORDAINKETA.
3. EGUN BEREAN BESTE MAILEGUREN BAT EGIN NAHI IZANEZ GERO, PROZESUA BERRIRO BETE BEHARKO DA. KASU HORRETAN, HALA ERE, EZ DA BESTE ORDAINKETARIK GAUZATU BEHARKO, ERABILERAK DIRENAK DIRELA ERE, ORDAINKETA BAKARRA DELAKO.
4. EGUN BAKARREKO ERABILERA EGIN NAHI DUTEN HERRIKO ZEIN HERRITIK KANPOKO PERTSONEI DAGO ZUZENDUTA AUKERA HAU.

BANKUKO TXARTEL BERAREKIN 2 BIZIKLETA EDO GEHIAGO ERABILI NAHI IZANEZ GERO, BIZIKLETA BAKOITZARI DAGOKION IZEN-EMATE PROZESUA (ZUTABE INFORMATIKOAREN BITARTEZ) BEREIZIA IZANGO DA ETA ORDAINKETA ERABILIKO DIREN BIZIKLETA KOPURUAREN ARABERAKOA IZANGO DA. KASU GUZTIETAN, ERABILTZAILE BAKOITZAK, BEHIN ORDAINDUTA, EGUN BAKAR BATEAN NAHI ADINA ALDIZ ERABILI AHALKO DU ZERBITZUA.

ERABILTZAILEAK, BETI ERE, BIZIKLETA MAILEGU ZERBITZUA ERABILTZEKO ARAUAK BETE BEHAR IZANGO DITU

- **MATXURAK:** BIZIKLETAREN BAT MATXURATUTA DAGOELA OHARTZEN BAZARA, EMAN EZAZU HORREN BERRI, BAI TELEFONOZ, BAI ZUTABE INFORMATIKOETAN DAUDEN GERTAKARI EDO MATXUREN ATALA ERABILITA. GERTAKARIAREN BERRI EMATERAKOAN, BIZIKLETAREN ZENBAKIA, ZURE IZENA ETA GERTAKARIAREN AZALPENA EMAN BEHAR DUZU.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2. ARAUDIA ETA ZIGORRAK. (IKUS ZIGOR-TAULA).

- ZERBITZUA EMATEN DUEN ERAKUNDEAREN ARDURA DA BERAU ONDO BETETZEA. UDALA SALBUETSITA DAGO ERABILTZAILEAK BIZIKLETA ERABILTZEN DUENEAN IZAN EDO ERAGIN DITZAKEEN KALTEETATIK ETA EZ DITU BERE GAIN HARTUKO ERABILERA DESEGOKIAK SORTUTAKO KALTEAK, EZTA ERABILTZAILEAK HIRUGARRENEI ERAGINDAKOAK ERE. EDOZEIN GORABEHERA BADAGO, ERABILTZAILEA ZERBITZUAREN KUDEATZAILEAREKIN JARRIKO DA HARREMANETAN 900 840 345 TELEFONOAN.
- ERABILTZAILEAK BIZIKLETA HARTZEN DUEN BAKOITZEAN, BIZIKLETA IBILTZEKO MODUAN DAGOELA EGIAZTATU BEHAR DU. IBILTZEKO MODUAN EZ BADAGO, BANKADAN UTZI BEHAR DU, GERTAKARIA ZUTABE INFORMATIKOAN AZALDU ETA BESTE BIZIKLETA BAT HARTU.
- BIZIKLETEN ZIRKULAZIOARI BURUZ INDARREAN DAGOEN ARAUDIA BETE BEHARKO DU. ARAU NAGUSIAK:
 - GALTZADAN ZIRKULATZEN DUTENEAN, INDARREAN DAUDEN TRAFIKO ARAUAK ETA GAINERAKO IBILGAILUAK ERRESPETATU BEHAR DITUZTE BIZIKLETEK.
 - OINEZKOEN GUNEETAN EZ LITZATEKE JOAN BEHAR 10 KM/ORDUKO BAINO AZKARRAGO.
 - BIDEGORRIRIK EZ BADAGO, BAIMENDUTA DAGO BIZIKLETAK ESPALOIETAN, NASETAN, 5 METRO BAINO GEHIAGOKO PASEALEKUETAN, PARKE PUBLIKOETAN ETA OINEZKOEK LEHENTASUNA DUTEN NORABIDE BIKO GUNEETAN IBILTZEA (EZ BADAGO OINEZKO ASKORIK).
 - SEMAFOROAK ETA TRAFIKO SEINALEAK ERRESPETATU BEHAR DIRA BETI.
 - OINEZKOEN PASABIDEAK BETI ERRESPETATU BEHAR DIRA ETA LEHENTASUNA EMAN OINEZ DABILTZANEI.
 - MANIOBRAK ALDEZ AURRETIK ADIERAZI BEHAR DIRA.
- GEHIENEZ ERE, ORDU BI JARRAIAN ERABILI DAITEKE.
- ARRAZOI LARRIAK DIRELA ETA, BIZIKLETA MAILEGATU DEN EGUN BEREAN EZIN BADA ITZULI, TELEFONOZ (900 840 345) JAKINARAZI BEHARKO ZAIE MAILEGU ZERBITZUKO ARDURADUNEI. ATZERAPENA ERAGIN DUTEN ARRAZOIAK ETA GORABEHERAK AZALDU BEHARKO DIRA ETA BIZIKLETAREN ZENBAKIA EMAN. KASU HORRETAN, HURRENGO EGUNEAN BERTAN ITZULIKO DA.
- BIZIKLETA BERANDU ITZULTZEKO ARRAZOI JUSTIFIKATURIK EZ BADAGO, ERABILTZAILEARI ZIGORRA EZARRIKO ZAIO ZERBITZUAN BAJA EMANEZ. ZERBITZUKO BAJAREN IRAUPENA GERTAKARIAREN LARRITASUNAREN ARABERAKOA IZANGO DA.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- BIZIKLETA BERE APARKALEKUAN UTZIKO DA, BEHAR DEN MODUAN KOKATUTA ETA GILTZARRAPO AUTOMATIKOZ LOTUTA, INORK EZ LAPURTZEKO MODUAN.
- ZERBITZUA ERABILTZEN DUTENAK UDALERRIKO MUGEN BARRUAN IBILI AHALKO DIRA SOILIK; IBILALDI HORIEK JOLASERAKO NAHIZ PASEORAKO IZAN DAITEZKE EDO HERRIAN EGUNERO EGIN OHI DIREN JOAN-ETORRIETARAKO. UDALERRIKO MUGETATIK IRTETEN BADA, ZIGOR LARRIA EZARRIKO DA.
- EZIN DA BIZIKLETA ERABILI IRABAZIA ATERATZEKO; HORTAZ, BERARIAZ DEBEKATUTA DAGO ALOKATZEA EDO TA SALTZEA, ETA MERKATARITZARAKO, GARRAIORAKO, MERKANTZIAK ERAMATEKO EDO HELBURU PROFESIONALETARAKO ERABILTZEA.
- EZIN ZAIE BIZIKLETA UTZI HIRUGARREN PERTSONEI.
- EZIN DA BIZIKLETA ERABILI BESTE PERTSONA BAT ERAMATEKO; MAILEGUA EGIN DUEN ERABILTZAILEA DA BIZIKLETAN IBILTZEKO BAIMENA DUEN BAKARRA.
- HALABER, ERABILTZAILEAK KONPROMISOA HARTZEN DU BIZIKLETA EGOKI ERABILTZEKO ETA ZIRKULAZIO ARAUAK NAHIZ GIZALEGEZKOAK ERRESPETATZEKO, HIRUGARRENEI BIDEA OZTOPATU GABE ETA ARRISKU EGOERARIK SORTU GABE. ERA BEREAN, BIZIKLETA ZAINTEKO KONPROMISOA DAUKA; BERAZ, ADI EGON BEHAR DU IBILGAILUA EZ GALTZEKO EDO INORK OSTU EZ DIEZAION. BIZIKLETA EZ DA INOIZ ERABILI BEHAR GURPIL BAKARRAREN GAINEAN EDO BESTE IBILGAILU BATEK TIRATUTA.
- BIZIKLETA HARTU ZEN MODUAN UTZI BEHARKO DA, HAU DA, GARBI ETA FUNTZIONAMENDUAN. BIZIKLETAK EZ BADU ONDO FUNTZIONATZEN EDO GORABEHERA MEKANIKOREN BAT IZAN BADU (PINTXAZOA, KATEA IRTETEA, ...) GORABEHERAREN BERRI EMAN BEHAR DA INFORMAZIO-GUNEAN, MANTENTZE-LANETAKO LANGILEEK KONPONDU DEZATEN.
- ERABILERA DESEGOKIA DELA ETA, BIZIKLETARI KALTEREN BAT EGITEN BAZAIO, KALTE HORI ERABILTZAILEAREN ERANTZUKIZUNA IZANGO DA; BERAZ, KASUEN ARABERA, ZERBITZUA ERABILTZEKO ESKUBIDEA GALDUKO LUKE, BAITA KONPONKETA GASTUAK BERE GAIN HARTU ERE.
- BIZIKLETAREN ERABILTZAILEA BEHARTUTA DAGO MAILEGUAN HARTUTAKO MATERIALA ZAINZERA ETA BABESTERA, INOLAKO KALTERIK, GALERARIK EDO LAPURRETARIK GERTA EZ DADIN ITZULTZEN DUEN UNERA ARTE. MAILEGUAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN, EZIN DA BIZIKLETA SEMAFOROEI, TRAFIKO-SEINALEEI EDO PAPERONTZIEI LOTUTA UTZI, EZTA ZAMALANETARAKO GUNEETAN EDO MINUSBALIOTASUNA DUTENENTZAKO LEKUETAN ERE.
- EZBEHARRIK EDO ISTRIPURIK GERTATUKO BALITZ, ERABILTZAILEAK HORREN BERRI EMAN BEHARKO DIE BIZIKLETAK MAILEGATZEKO ZERBITZUAREN ARDURADUNEI.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- BIZIKLETA EBATSI EDO LAPURTUKO BALUTE, ERABILTZAILEAK SALAKETA JARRI BEHARKO DU POLIZIAN 12 ORDU BAINO LEHEN; GAINERA, GERTAERA HORREN BERRI EMAN BEHARKO DIE ZERBITZUAREN ARDURADUNEI ETA SALAKETAREN ORIGINALA AURKEZTU. HORI EGIN EZEAN, URTEBETEKO BAJA EMANGO ZAIO, ZIGOR GISA, MAILEGU ZERBITZUAN, ETA 300€ ORDAINDU BEHARKO DITU.
- BIZIKLETA ITZULTZEN EZ BADA, ERREKERIMENDU BI IGORRIKO ZAIZKIO AZKEN ERABILTZAILE MODUAN AGERI DEN MAILEGU-ZERBITZUAREN TITULARRARI. ERREKERIMENDU HORIEK BIAK EGIN ONDOREN, BIZIKLETA ITZULTZEKO EXIJITUKO ZAIO TITULARRARI, EDO BESTELA IBILGAILUAREN BALIO ESTIMATUA ORDAINTZEKO.
- *Amorebiziz* TXARTELA ALDEAN ERAMAN BEHARKO DA MAILEGUAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN, BIZIKLETA HARTZEN DENETIK ITZULTZEN DEN ARTE.
- *Amorebiziz* ZERBITZUAN EMANDAKO DATUAK ZUZENAK ETA EGIAZKOAK IZAN BEHAR DIRA BETI.
- BAJA EMAN NAHI BADA, BORONDATEZKO BAJA-ORRIA BETE BEHAR DA ETA POSTAZ BIDALI *Amorebiziz*-ERA.
- *Amorebiziz* TXARTELA GALTZEKOTAN, ORDENANTZA FISKALAK DIOENA APLIKATUKO DA, 2010EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA..



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

ZIGOR-TAULA:

| ARAU-HAUSTEA | LARRITASUNA | ZIGORRA |
|---|--------------------|---|
| ORDUBETE BAINO GUTXIAGOKO ATZERAPENAZ ITZULTZEA BIZIKLETA, 1. ALDIZ | ARINA | ZIGORRIK GABE |
| ORDUBETE BAINO GUTXIAGOKO ATZERAPENAZ ITZULTZEA BIZIKLETA, 2. ALDIZ | ARINA | 24 ORDU ZERBITZURIK GABE |
| ORDU BI BAINO GEHIAGOKO ATZERAPENAZ ITZULTZEA BIZIKLETA. | ARINA | 10 EGUN ZERBITZURIK GABE |
| LAU ORDU BAINO GEHIAGOKO ATZERAPENAZ ITZULTZEA BIZIKLETA. | ARINA | 20 EGUN ZERBITZURIK GABE |
| 3 FALTA ARIN PILATUZ GERO | LARRIA | 30 EGUN ZERBITZURIK GABE |
| BIZIKLETA MAILEGU PUNTUETAN BEHAR BEZALA EZ APARKATZEA | LARRIA | 2 HILABETE ZERBITZURIK GABE |
| 24 ORDU BAINO GEHIAGOKO ATZERAPENA | LARRIA | URTEBETE ZERBITZURIK GABE |
| UDALERRIKO MUGETATIK KANPO JOATEA | LARRIA | URTEBETE ZERBITZURIK GABE |
| NORBERARENA EZ DEN TXARTELA ERABILTZEA | LARRIA | ZERBITZUKO ERABILTZAILEA BALITZ, ZERBITZURIK GABE UTZI URTE OSO BATEN. ZERBITZUKO ERABILTZAILEA EZ BADA, BESTE URTE BATEN ERABILTZAILE IZATEKO AUKERA UKATU. BETI ERE 100 €TAKO ISUNA. |
| DATU FALTSUAK EMATEA | LARRIA | URTEBETE ZERBITZURIK GABE |
| BIZIKLETA EDO TXARTELA HIRUGARREN BATI UZTEA, (TXARTELA UTZI BARIK) | OSO LARRIA | URTEBETE ZERBITZURIK GABE |



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

| | | |
|---|------------|---|
| BIZIKLETA IRABAZIA ATERATZEKO ERABILTZEA | OSO LARRIA | ZERBITZUA MUGA GABE KENTZEA ETA 300 €KO ZIGORRA |
| BIZIKLETA EZ ITZULTZEA ETA LAPURRETA SALAKETAREN KOPIA EZ AURKEZTEA (LAPURRETA GERTATU IZANEZ GERO) | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 300€ ORDAINTZEA |
| TITULARRA EZ DEN BATI TXARTELA EDO AKREDITAZIOA LAGATZEA. | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 300€ ORDAINTZEA |
| BIGARREN PERTSONA BAT BIZIKLETAN ERAMATEA | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 200€ ORDAINTZEA |
| BIZIKLETA ERA EZEGOKIAN ERABILTZEA, BAI MUGIMENDUAN ZEIN GELDIRIK APARKATUTA DAGOANEAN | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 300€ ORDAINTZEA |
| BIZIKLETAK MARGOZTU EDO TA EUREN MARRAZKIAK KENTZEA | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 300€ ORDAINTZEA |
| EKIPAMENDUA MARGOZTEA (PANELAREN ZUTABEA ETA BANKADAK) | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 400€ ORDAINTZEA |
| EKIPAMENDUAN EZBEHARRAK GAUZATZEA | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 500€ ORDAINTZEA |
| PANTAILA HAUSTEA | OSO LARRIA | ZERBITZUA KENTZEA ETA 800€ ORDAINTZEA |

GOIAN AZALDUTAKO FALTA GUZTIAK JUSTIFIKATU GABEKO ARAU-HAUSTEAK DIRA; ERABILTZAILEEK GERTAKARIA JUSTIFIKATZEN BADUTE, EZ ZAIE APLIKATUKO TAULA HORI. BANAN-BANAN AZTERTUKO DIRA KASUAK. FALTAK METATU EGITEN DIRA.